

IRAGARKIA

Zerbaiten berri emateko argitaratzen den jakinarazpen publikoa da.

Mezu bat transmititzen du, normalean ideia edo gertaera jakin batean zentratuta izaten da, **publizitate-helburuekin**.

Publizitate-iragarkia pertsonak produktu, gertaera, edo antzeko **zerbait ezagutu ahal izateko** egiten den **mezua da**.

Iragarki bat: **ikusizkoa, entzunezkoa edo ikus-entzunezkoa** izan daiteke.

Eslogana iragarkiaren **esaldia garrantzitsuena da**.



Eslogana esaldi laburra da, hartzaileari deigarri eta esanguratsu gertatzeko asmoz sortua, eta publizitatean asko baliatzen da. Deigarritasuna lortzeko, errimak, hitz jokoak eta konparazioak erabiltzen dira.

AZTERTU IRAGAKIAK ETA ERANTZUN.



1. NORI ZUZENDUTAKO IRAGAKIAK DIRA? IDATZI "A", "B", "C" EDO "D".

- Ordenagailuak, internet, faxa... erabiltzen dutenei.
- Euskera edo ingelesa ikasi nahi duen edonori.
- Edonori.

2. NOLAKOAK DIRA IRUDIAK ETA HITZAK? "x" batekin markatu zuzenak direnak.

- | | |
|-----------------------|---|
| - Esaldi luzeak | - Hitz jokoak eta errimak |
| - Esaldi motzak | - Hitz zientifikoak |
| - Esaldi deigarriak | - Beti irudia agertzen da |
| - Esaldi aspergarriak | - Irudia ez dago esaldiekin erlazionatura |

3. ADIERAZI BAIEZTAPEN HAUEK EGIA (E) EDO GEZURRA (G) DIREN.

- a. Iragarkietan mota guztietako jendea agertzen da: itsusiak, lirainak, argalak, lodiak...
- b. Iragarkietan, irudiek testuak baino garrantzia handiagoa dute beti.
- c. Iragarkietan helburua jendea erakartzea eta konbentzitzea da.
- d. Askok, errazago saltzeko, trikimailuak erabiltzen dituzte; hau da, ez dituzte produktuaren ezaugarriak argi eta garbi adierazten.
- e. Irudiak erakargarria izan behar du; baita mezuak ere, hitz gutxitan gauza asko adierazi behar baititu.

4. ZATIAK ONDO BATZEN BADITUZU, LAU ESLOGAN SORTUKO DITUZU.

Gernikako piperrak

Beloki iturginak,

Aztiria erretegia,

Bizitzaren ikuspegi ederragoa izan nahi baduzu,

zatoz Oskarbi optikara!

gozoak bezain ederrak!

langile on eta finak!

baserri giroko sukaldaritza.